

ZER DA NEKAZARITZA EKOLOGIKOA?

Nekazaritza ekologikoa, organikoa edo biologikoa, nekazaritza-ustiategi autonomo bat lantzeko sistema bat da, eta baliabide naturalen erabilpen ezin hobean oinarritzen da. Sistema horretan, ez dira produktu kimikorik erabiltzen ezta genetikoki eraldaturiko produkturik (GEP) ere ez (ez ongarrirako eta ez izurriteen aurka joateko). Modu horretan, elikagai organikoak lortzen dira, lurraren emankortasuna mantentzen da, eta, era berean, ingurumena errespetatzen dugu.

Nekazaritza organikoaren helburu nagusiak dira osasungarri eta kalitate hobea duten produktuak ekoiztea, betiere sintesi-sustantzi kimikorik gabeko eta prozedura sostengarrien bitartez lortutako produktuak izango dira.

Nekazaritza-mota hau ekoizpenaren kudeaketaren sistema globala da, eta laborantza-sistemen osasuna areagotzen eta goratzen ditu; aniztasun biologikoa, ziklo biologikoak eta lurzorua-ren aktibitate biologikoak barne.

KALITATE BERMEA ETA PRODUKTU EKOLOGIKOEN EGIAZTAGIRIA EDO ZIURTAGIRIA

Nekazaritza ekologikoaren ekoizpen sistema Europar Batasuneko arauen bidez erregulatzen da, non, nekazaritza mota honetan, eginbeharreko prozesuak eta erabilgarriak diren produktuak zehazten diren.

Euskadiko Nekazaritza Ekologikoko Batzordeak, hots, produktuen ekoizpen-ziklo guztia ikuskatzen duenak eta produktuei dagokien identifikazio-etiketa jartzen diotenak; kontsumitzaileari ziurtatzen dizkio Nekazaritza Ekologikoaren arauen arabera lortutako elikagaiak (Araudia 2092/91 EEE)

Beste berme on bat da nekazari-ekoizlea zuzenean ezagutzea, non, nola eta zelan lantzen den lurra jakitea, hain zuen ere. Zuzeneko erlazio horrek eta prozesuaren kontzientzia-mailak konfiantza handiagoa ematen dio kontsumitzaileari.

PRODUKTU EKOLOGIKOAK KONTSUMITZEKO 10 ARRAZOI:



1. Osasungarriak direlako :

Produktu ekologikoak osasungarriagoak dira, pestizidetatik (fungizidetatik, intsektizidetatik, herbizidetatik), antibiotikoetatik, gehigarrietatik, kontserbagarrietatik eta sintesi-ongarrietatik eratorritako hondakin toxiko iraunkorretatik kanpo daudelako. Horietako hainbat sustantzia nekazaritza industrialean erabiltzen dira (industrialean, intentsiboan...), eta nekazaritza ekologikoan guztiz debekatuta daude.

2. Baserri-garapenari laguntzen diolako :

Lanerako ingurune dinamikoa sortzen du, nekazaritza-sektoreari balioa ematen dio, eta, aldi berean, ingurune osasungarri bat ere bai.

3. Nekazal ondarea eta paisaia mantentzen eta hobetzen duelako.

4. Ingurumenarekin jasagarriak direlako:

Nekazaritza ekologikoak hainbat modu ditu ingurumena babesteko: berotegi-efektuko gas-isuria gutxitzen du (horrela, aldaketa klimatikoan isuri horrek duen eragina gutxitzen da), biodibertsitateari laguntzen dio, produktu toxikoen erabilpena murrizten du,...

5. Produktuen kalitatea ezin hobea delako:

Elikagai ekologikoa tokiko baliabide genetikoak erabiltzen dituen nekazaritzatik dator. Uraren erabilpena kontrolatzen du, eta sasoi-produktuak lantzen ditu. Horrekin guztiarekin, produktu horiek hobeak dira zentsu organoleptikoan, osasunean eta sukaldaritzan.

6. Elikagai fidagarriak direlako:

Elikagai ekologikoak gehieneko fidagarritasun ekoizpen sistema batetik datoz, produktu horien trazabilitatea landatik kontsumitzaileen platerera doana 2092/91 Araudi Europarraren bidez erregulatua dagoelako.

Nekazaritza-elikagaien katean parte hartzen dituzten agente guztiek kontrola eta ikuskaritza jasoko dute, kontrolerako eta produktuen ziurtapenerako egiaztatuta dauden enpresengandik. Ikuskaritza eta kontrola hurrengo fase hauetan ematen da: erabilitako lehengaietan, lantze-prozesuan, ontziraketa prozesuan eta produktuaren etiketatuan.

7. Genetikoki eraldatutako produktuak baztertzen dituelako:

Nekazaritza ekologikoak zuzenean uko egiten die genetikoki eraldatutako organismoiei edo transgenikoei.

8. Begirunetsuak direlako abereen ongizatearekin

Animali ekoizpen artifizialari era zuzenean edo zeharkakoan laguntzen dioten praktikak debekatzen dira.

9. Nekazaritza-lursailerako sargaien erabilpena txikiagotzen duelako:

Sargaien beharra murrizten du, elikagaien ekoizpenerako tokiko eta hurbil dauden produktuak erabiltzen ditu, eta, aldi berean, nekazaritza-ekoizpeneko balantze energetikoa hobetzen du.

10.Nekazaritza-kultura elkartuaren garapenean laguntzen duelako:

Nekazaritza ekologikoa saiatzen da lan-giro berdintsuak sortzen, eta ohiturak, tradizioak eta nekazaritzari lotutako kultura berreskuratzen.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

<http://www.eneek.org/descargas/inicio/liburuxka%20gazteleraz.pdf>

